

KARLOS MARX

Langintza edo industria aurreratu zanean, munduan iraulketa aundia agertu zan.

Lantegien jabe ziranak, lana indartzeko, dirua pillatu bear eben eta langileak euren irabaziak oso murriztuak ikusi ebezan, eta euren izerdia garratza eta irabazi gitxikoa zan.

Egoera larri onetan gizon buru-argi bat agertu zan. Karlos Marx. Onek zabaldu ebazan bideak arazoa konpontzeko, baiña ez beti bide egokiak.

Batzuk Marx'en bidea artu eta komunismoa sortu eben, dirutza beti laterriarena dala eta agintariak be "proletarioen diktadura" gogorra zirala.

Proletarioen diktadura eritxon bide orrek ondamendia ekarri eutsen erriari, esaterako Errusia'n: Baserritarrai lurak kendu eta oneitatik, 15 milloi erail ondoren, besteak Siberia'ra bialdu ebezan, egozan agintariak be erail ebezan, (Tzar'en etxeoak) eta irabazi guztiak laterriarentzat izatea agindu eben.

...

Bide onek ondamendira daroala ikusi da, batez be Berlin'go ormea kendu zanean eta gaur Kuba da bide ori jarraitzen dauan bakarra.

BEGIA

Begia zoli dago
itxasora begira
mendi bizkarretik,
an, urrin urdiñean
arrain zuriak dabiltz
saltari uretik.

Goizeko ordubietan
arrantzaleak doaz
izontzi nausian,
abesti gozoenak
aidetuaz pozkiroz
uraren gaiñian.

Bakez dator eguna
argirik gozoena
gizonei emoten,
arrantzaliak doaz
arrain gozoen billa
zapiak zabaltzen.

Paulin

Baiña beste bide bat be sortu zan Marx'en irakatsietatik, gaur sozialistak deritxenen bidea, eta onek ondoren ohea lortu dau: Langilleen baldintzak obetu dira eta lantegiak ondo jarraitzen dabe.

...

Baiña goazen Karlos Marx bera ezagutzera.

Karlos Marx Treberis'en jaio zan 1818n. urtean, orrillaren 5n. egunean. Sendia judatarra zan baiña bera protestante biurtu zan eta judatarren aurka gogor idatzi eban.

Ikasketak Berlin'en eta Bonn'en egin ebazan eta Hegel'en filosofia izan jakon atsegin, naiatza idealismo kendu eta materialismoaren barruan sartu. Gizartea aztertzeke tesis-antitesis eta sintesis bidea onartu eban.

1844n. urtea Paris'en Engels ezagutu eban. Au aberatsa zan eta asko lagundu eutson Marx'eri sozialisten bidean. Marx'ek izan eban legez kanpoko seme bat be eta Engels'ek berea lez artu eban.

1.845n. urtean Bruselas'era joan zan eta komunismo-taldeak sortu ebazan. Oneik bide gogorak artu ebezan, esaterako ateismoa, iraulketa, gogorkeria eta erailketa asko egiteko bideetatik sartu ziran, proletarioen dikadura be onartzen ebela.

Burubide oneikaz sortu ziran Errusia'ko boltxebikeen bidea eta Txina'ko maoismoa...

Marx'ek 1.848n. urterako iragarri eban sozialisten iraulketa osoa baiña ez zan bete asmo ori eta Belgika'tik erbesteratu egin eben Marx. Gero Alemania'ra, Frantze'ra eta Bretainia'ra joan zan.

Engels'en diru-laguntzagaz "Kapital" deritxon liburu argitaratu eban, ia dana, baiña argitaratu bagerik geratu jakozan atal batzuk ukatu egin ebazan. Liburu onen zati batzuk ez dira bereak, plajioak dira.

Azkenengo urteetan goibel agertzen zan Marx, bere burubideak aurrera egiten ez ebelako eta bere lagun batzuk beragandik urrindu ziralak eta bere itxaropena ziran Alemania'k eta Bretainia'k beste bide batzuk artu ebezalako.

1.883n. urteko epaillaren 14n. egunean il zan Marx, bere burubideak Errusia'n sartu zirala jakin bagerik.

Amaitzeko, onura asko ekarri dauz Marx'ek gizartera eta langilleen egoerea obetzeko, baiña bere jokabide okerrak kalte aundia egin dabe, esaterako Errusia'n txirotasuna sortu dabelako. Txina'n zurrango jokatu dabe eta gaur "azokearen ekonomi"ra sartzen diardue.

OLAZAR'tar Martin'ek